

## GAIA AZALDU ETA IRITZIA EMAN

*Jarraibidea: Irakurri testua eta presta ezazu gaia, ahoz garatzeko. Behean dituzu horretarako zenbait lagungarri.*

# Ikasle gazteak eta kirol-apustuen moda

Kezkatuta dago Bigarren Hezkuntzako irakaslea: tabernetan kirol-apustuak egiteko dauden makinetan eta interneteko webetan gero eta ikasle gehiago dabil, aisialdirako plana ere bada hainbatentzat, eta horren ondorioei ez diegu nahikoa arreta jartzen. Datuek ere halaxe diote: gero eta gazteagoa da apustulariaren profila; gero eta handiagoak dira ludopatiaren atzaparrak.



Adin txikikoek debekatuta dute apustu egitea, baina gure tabernetan dirua jokatzeko makinak ugaritu direnetik, ez da zaila 14-18 urteko gazteak (ere) horretan ikustea. "Gazte hasten dira, jolas moduan ikusten dutelako, eta ludopatia klasikoaren ondorioak badakizkitez, baina ez onlineko apustuenak. Azken finean, oso erraza da, diru gutxi behar duzu eta berehalako saria jasotzen duzu; mendetasun-sortzailea da. Gainera, irudi soziala bera positiboa da, kirolari lotuta dagoelako, kirolari arrakastatsuei; kirol izarrak eurak azaltzen dira apustu egitera dei egiten duten iragarkietan", kritikatu du Angel Turbi psikologo eta mendekotasunetan adituak. Etxeko sofatik altxa gabe ere aritu daiteke apustuan: horretara bideratutako weben kopurua haziz doa eta mugikorretik bertatik apustu egiteko aplikazio ugari deskargatu daitezke.

Lanketarik ez eskoletan

Jordi Martí irakasleak uste du ez dela kasualitatea: apustuzaleak diren ikasleek errendimendu akademiko txarra edo oso txarra izan ohi dute, eta beste ikastetxe batzuetako irakasleek ere berretsi dute bere teoria. 14-15 urterekin jokoaren menpe bizi direla dio, baina gaiak arreta handirik pizten ez duenez, ez dagoela ikastetxeetan ludopatiari buruzko jardunaldirik edo prebentziora zuzendutako ekimen eta tailerrik. Eta gazte horiek eskola uzten dutenean, arazo sozial larri bilakatu daitekeen zama eramango dute bizkar gainean.

Informazio-iturria: [www.argaia.eus](http://www.argaia.eus). Mikel Garcia Idiakez. (Moldatua)

### Gaia prestatzeko:

Zein dira testuan ageri diren datu edota ideia nagusiak? Zuk zein ideia azpimarratuko zenituzke?

### Eman gaiari buruzko iritzia:

- Kirol-apustuekin arazoa duenik ezagutzen duzu? Euskal Herriko gazteek arazo hau bizi al dute?
- Gaur egun, kirol-apustuekin zaletzea errazago dela uste duzu? Zein dira arrazoiak?
- Zein dira kirol-apustueterako adizioak sortzen dituen ondorioak?
- Gaur egun errazago da gazteak kirol-apustueteran aritzea?
- Zer egin behar genuke kirol-apustueterako adikzioa saihesteko?

**Hiztegi lagungarria**

- Jokorako ADIKZIOA: Zerbaiterako menpekotasuna, dependentzia izatea.
- Menpekotasun-arazoetan ADITUA da: Gai horretaz asko dakiena.
- Adikzio honen zenbait ondorio SAIHESTU daitezke: Ekidin, alboratu.
- Jokoaren ATZAPARRETAN erori: Jokoaren mende egon, ihesbiderik gabe.
- Irakasleek BERRETSI dute bere teoria: Aurretik esan edo erabaki denaren balioa baieztatu.

**Gai honi lotuta, Ikasbil atariko beste hainbat material**

- 2072254 [Apustuzalea zara? Zenbat diru jokatzera ausartuko zinateke?](#)
- 18063496 [Jokorako adikzioa](#)
- 21134392 [Kirol-apustuak: Jokoa ez da errenta](#)
- 387350 [Ludopata baten testigantza](#)
- 2072275 [Apustuzaleak al gara?](#)

**Beste erreferentzia batzuk.**

- Kirol apustuak: Iruzur arriskurik handiena, tenisean eta maila apaleko futboleant. [Argia.eus](#)
- Azpijokoa arbitro. [Argia.eus](#)
- Kirol-apustuen negozioa, gero eta finkatuago. [Goiena.eus](#)